



LAUDIO
ikastola

OHIKO BATZAR
OROKORRERAKO
TXOSTENA

2018ko ekaina

AURKEZPENA

Kaixo bazkide,

Datorren ekainaren 19an, asteartea, Laudio Ikastolako Guraso Kooperatibaren Urteko Batzar Orokorra ospatuko dugu.

Beraz, Ikastolako bazkide guztiak gonbidatuta zaudete urteko batzar horretara.

Gogoan izan bertan landuko ditugula zuen seme-alaben hezkuntzarako garrantzitsuak diren gai nagusiak.

Bertan jorratuko ditugun gaiak biltzen dituen txostena helarazten dizuegu baita jorratuko dugun gai zerrenda ere.

Bilerak duen garrantziaz ohartu eta bertaratuko zaretelakoan agurtzen zaituztet.

Adeitasunez

*Ixone Urkijo
Ikastolako lehendakaria*

AURKIBIDEA

AURKEZPENA.....	2
2017 EKITALDIAREN EMAITZA KONTUA.....	3
2017 EKITALDIAREN EGOERA BALANTZEA	5
2018 EKITALDIRAKO AURREKONTUA	7
EGOERA EKONOMIKOAREN HAUSNARKETA.....	9

2017 EKITALDIAREN EMAITZA KONTUA

	2017	2016
A) ERAGIKETA JARRAITUAK		
1. Negozio-zifraren zenbateko garbia	1.313.271	1.232.842
a) Salmentak.....	1.313.271	1.232.842
4. Hornikuntzak.....	(466.952)	(324.504)
a) Salgaien kontsumoa.....	(104.927)	(83.387)
b) Lehengaien eta bestelako material kontsumigarrien kontsumoa.....	(186.937)	(154.584)
c) Beste enpresa batzuek egindako lanak.....	(175.088)	(86.533)
5. Ustiapeneko bestelako sarrerak.....	3.280.812	3.339.647
a) Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk.....	107.343	179.729
b) Ekitaldiko emaitzan sartutako ustiapeneko diru-laguntzak.....	3.173.469	3.159.922
6. Pertsonal gastuak	(3.696.597)	(3.743.795)
a) Soldatak, lansariak eta antzekoak.....	(2.886.073)	(2.920.966)
b) Karga sozialak.....	(810.524)	(822.830)
7. Ustiapeneko bestelako gastuak	(221.748)	(327.754)
a) Kanpoko zerbitzuak.....	(199.511)	(301.017)
b) Tributuak.....	(469)	(852)
c) Eragiketa-komertzialeko galerak, narriadurak eta hornidura-aldakuntzak.....	(1.003)	(2.342)
d) Kudeaketa arrunteko bestelako gastuak.....	(20.765)	(23.543)
8. Ibilgetuaren amortizazioa.....	(251.762)	(237.144)
9. Ibilgetu ez-finantzarioko diru-laguntzen eta bestelakoen egozpena	29.615	29.615
13. Bestelako emaitzak.....	74.590	-
A.1) USTIAPENEO EMAITZA.....	61.229	(31.094)
14. Sarrera finantzarioak.....	255	619
b) Balore negoziagarrien eta bestelako finantza-tresnen sarrerak.....	255	619
b2) Hirugarren enpresetakoak.....	255	619
15. Gastu finantzarioak	(18.407)	(13.694)
b) Hirugarrenetikiko zorrenak.....	(18.407)	(13.694)
16. Finantza-tresnen narriadura eta besterentzearen emaitzak	(18.543)	-
a) Narriadura eta galerak.....	(18.543)	-
A.2) EMAITZA FINANTZARIOA	(36.695)	(13.076)
A.3) ZERGA AURREKO EMAITZA	24.534	(44.170)
19. Mozkinen gaineko zerga.....	-	-
A.4) ERAGIKETA JARRAITUEN EKITALDIKO EMAITZA	24.534	(44.170)
A.5) EKITALDIKO EMAITZA.....	24.534	(44.170)

2017 EKITALDIAREN EGOERA BALANTZEA

AKTIBOA

	euroak BALANTZEA 2017	euroak BALANTZEA 2016
A. AKTIBO EZ KORRONTEA	4.711.551	4.600.202
I. Ibilgetu ukiezina	409	-
5. Aplikazio informatikoak	409	
II. Ibilgetu materiala	4.577.652	4.464.947
1. Lurrak eta eraikuntzak	3.318.521	3.459.018
2. Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu materiala	1.259.131	1.005.928
IV. Taldeko enpresetako eta elkartuetako epe luzeko inbertsioak	74.464	68.298
1. Ondare tresnak	63.656	57.490
3. Zorra adierazten duten baloreak	10.808	10.808
V. Epe luzeko finantza-inbertsioak	59.026	66.958
1. Ondare-tresnak	17.898	17.898
2. Hirugarrenetik hartzekoak	40.528	49.060
5. Bestelako aktibo finantzarioak	600	
B. AKTIBO KORRONTEA	925.695	665.320
II. Izakinak	14.998	22.977
1. Merkataritzakoak	9.795	16.088
2. Lehengaiak eta bestelako hornikuntzak	5.203	6.888
III. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	148.320	34.741
1. Bezeroak, salmentengatik eta zerbitzu-emateengatik	14.064	5.325
6. Administrazio publikoekiko bestelako hartzekoak	134.256	29.416
V. Epe laburreko inbertsio finantzarioak	274.145	424.145
5. Bestelako aktibo finantzarioak	274.145	424.145
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	488.232	183.458
1. Diruzaintza	488.232	183.458
AKTIBOA GUZTIRA	5.637.246	5.265.523

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA

	euroak BALANTZEA 2017	euroak BALANTZEA 2016
A. ONDARE GARBIA	3.790.065	3.897.681
A.1 Funts propioak	1.345.182	1.319.525
I. Kapitala	58.183	56.894
1. Kapital eskrituratua	58.183	56.894
II. Erreserbak	1.306.635	1.306.800
3. Estatutuetakoko erreserbak	116.705	116.705
4. Beste erreserbak	1.189.930	1.190.095
III. Aurreko ekitaldietako emaitzak	(44.170)	
2. Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak	(44.170)	
V. Kooperatibaren soberakina (negatibo edo positiboa)	24.534	(44.170)
A.3 Hartutako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	2.444.883	2.578.156
B. PASIBO EZ-KORRONTEA	1.174.785	905.153
I. Hezkuntza eta sustapen kooperatiborako eta interes publikoko bestelako xedeetarako ekarpena (COFIP)	20.623	31.772
III. Epe luzeko hornidurak	258.788	260.794
1. Pertsonalaren epe luzeko lansarien obligazioak	258.788	260.794
IV. Epe luzerako zorrak	895.374	612.586
2. Kreditu erakundeekiko zorrak	829.631	546.843
5. Epe luzeko bestelako partaidetzak	65.743	65.743
C. PASIBO KORRONTEA	672.396	462.689
V. Epe laburreko zorrak	78.890	54.858
2. Kreditu erakundeekiko zorrak	78.886	54.858
5. Epe laburreko bestelako partaidetzak	4	4
VI. Taldeko enpresekiko, elkartuekiko eta bazkideekiko epe laburreko zorrak	-	6.693
1. Taldeko enpresekiko zorrak	-	6.693
VII. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak	593.506	401.137
1. Hornitzaileak	101.527	50.535
3. Hainbat hartzekodun	80.897	70.740
4. Pertsonala	190.542	47.699
5. Zerga korronteengatik pasiboak	3.598	-
6. Administrazio Publikoekiko bestelako zorrak	216.942	232.164
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	5.637.246	5.265.523

2018 EKITALDIRAKO AURREKONTUA

GASTUAK	euroak AURREKONTUA	euroak AURREKONTUA
	2018	2017
LANSARIAK	3.645.069	3.607.792
Irakasleoa	2.276.582	2.271.642
Administrazioa	111.428	104.396
Jantokia+garraioa	170.901	171.659
Mantenimendua-garbiketa	107.704	106.130
Ordezkapenak	148.647	146.450
Aurrejubilazioak-Liberatuak	135.953	132.082
Enpresaren kargurako G. Segurantza	798.982	784.422
Gastu Sozialak	26.519	23.162
PRESTAKUNTZA	17.000	14.300
FUNTZIONAMENDUA	189.435	182.035
MANTENIMENDUA	148.540	151.864
JANTOKIA	127.600	116.425
KOMUNIKAZIOA	13.500	18.126
GARRAIOA	71.902	72.765
FINANTZ GASTUAK	17.245	17.330
IKASTOLAKO BEKAK	29.391	24.068
BESTELAKO GASTUAK / EKE	87.266	69.923
URTEKO AMORTIZAZIOA	274.145	251.473
GASTUAK GUZTIRA	4.604.093	4.512.089

SARRERAK

	euroak AURREKONTUA 2018	euroak AURREKONTUA 2017
EUSKO JAURLARITZA	2.924.147	2.876.461
Hezkuntz Kontzertuak	2.639.254	2.609.321
Inbertsioak	8.532	8.532
Proiektuak- 0-3 urte	142.090	123.819
Bestelako kontzeptuak	134.271	134.789
LAUDIOKO UDALA	124.484	54.590
KUOTAK	1.272.840	1.191.098
Ikastola	511.332	501.967
Jantokia	438.937	380.781
Garraioa	34.775	26.888
Bestelakoak	6.500	6.500
Aparteko kuota	80.080	77.800
Inbertsio kuota	166.696	163.149
GKE/Gelaz Kanpoko Ekintzak	34.520	34.014
BESTELAKO SARRERAK	95.425	136.739
KAPITAL DIRULAGUNTZAK	127.074	124.740
ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK	41.891	39.075
SARRERAK GUZTIRA	4.589.261	4.424.371
2017 EKITALDIAN SORTUKO DIREN ERREKURTSOAK		-14.832
2017 EKITALDIRAKO BANKU AMORTIZAZIOEN AURREIKUSPENA		79.523

EGOERA EKONOMIKOAREN HAUSNARKETA

Aurkeztutako balantze eta emaitza kontua Ikastolatik kanpoko ikuskaritza enpresa batek egindako auditoretzan jasota daude eta bazkide guztiek txosten osoa kontsultatzea dute Ikastolako idazkaritzan.

Urte edo ekitaldian zehar aurrekontuek ezarritako jarraibidea era zehatzean aplikatzen dugu une oro, eta egunerokoan gerta dai-

tezkeen gorabeheren arabera egokitzapen ezberdinak bideratzen ditugu.

Hortaz, Ikastolaren egoera ekonomikoari buruzko hausnarketa 2017 ekitaldian jasotako gastu eta sarreren azterketatik abiatu behar dugu, bertan emandako desbideratzeak baliatuko ditugu izandako gorabeherak azaltzeko.

GASTUAK


Gastuen atalean guztira emandako desbiderapena %4koa izan da, atalez atal azter daitekeena:

SOLDATAK

Gastu guztien %80 suposatu dute 2017an.

Azpimarratzekoa da berriro 2016ko urtarrilean LAB sindikatuak eta Ikastolen elkarteak 2009ko lan hitzarmeneko soldata taula ordaintzeko adostasuna lortu zutela. Eusko Jaurlaritzako hezkuntza itunek berriz, 2010 urtetik irakasleriaren soldaten finantzaziorako ezarritako murrizketak mantentzen dituzte. Ondorioz ez da berreskuratu lan hitzarmeneko soldaten finantzaziorako iturri nagusia eta hainbat laguntzatan emandako alde positiboetan oinarritu zen Ikastolen Elkarte soldata taulak ordaintzeko akordioari eusteko. Hartara, soldata taulen ordainketa berreskuratu da baina finantzazio publikoari dagokionez murrizketekin jarraitzen dugu.

Irakasleriaren soldata partidari dagokionez, orokorrean ez da desbideratze aipagarririk eman baina salbuespen batzuk aipatu behar dira:



- *Ordezkapen partidak aurreikusitakoa %13 gainditu du; oso zaila da atal honetan aurreikuspen ziurrak egitea.*
- *Langileekiko dagoen zorraren zati bat ordaindu da 2017an; kopuru horiek 2012-2015 sortutako zenbatekoen parte bat da. Horrez gain oraindik kontabilitatean zor moduan jaso gabeko zorraren zatia probisionatu da, hain zuzen, 2014 eta 2015 urteei zegokiena. 2011 urtekoa berriz, ez da oraindik jaso, akordioa falta delako Ikastolen Elkarte eta sindikatuen artean.*

JANTOKIA

Zerbitzuan erabiltzaile gehiago egon dira eta horrek elikagaien gastua handitu du. Jantokiko diru sarreretan ere erabiltzaileen hazkundera nabaritu da proportzio berdinean.

KOMUNIKAZIOA

2016an Ikastolaren irudi korporatiboa eraberritzeko plana abian jarri zen eta 2017an jarraipena eman zitzaion. Aparteko esfortzu ekonomikoa egiten ari da Ikastola komunikazio planean eta matrikula kanpainetan.

IKT

2018/2019 ikasturtean Lehen Hezkuntzako 5. mailatik aurrera ikasle bakoitzak bere Chromebook ordenagailua izango du. Ikastolak zerbitzu egokia bermatzeko esfortzua egiten du.

BESTELAKO GASTUAK

Bestelako gastuetan jasota dauden hainbat partidak sarrera ekonomikoa ere badute eta beraz, gastu eta sarrera atalak konpentsatu egiten dira; hauen artean daude, bes-

teak beste, errigora saskiak, xiberüko saskiak, euskaraz bizi nahi dut kanpainako jantziak,...

ELKARTASUN IKASTOLAK EKE elkar-teak azken bost urteetan izandako galerek, Laudio Ikastolak egindako kapital ekarpeneren balio galtzea eragin du. Aurten arte galera hauek jaso gabe zeuden eta 2017an kontutan hartu dira bere zenbateko osoan (18.500 euro).


ICETEC enpresak 2016an egindako elektrizitate ikuskaritzaren ondorioz egindako egokitzapen lanen berrazterketa egin du 2017an enpresa berak, instalazioaren egoera egokia egiaztatu du.

Urte bukaeran, egoera ekonomikoak ahalbidetzen zuela ikusita, ikastolako hainbat esparrutan hobekuntza txikiak egin dira; besteak beste, oraindik altzaririk gabe zeuden batzar gelatarako mahaiak eta aulkiak, sukaldean matxuratuta zegoen zartagina berri batetik aldatu da,...

SARRERAK

Sarreraren atalean ere %4ko desbiderapen positiboa eman da orokorrean.

- Diru-laguntza ataletik aparte, diru sarrera iturri nagusia kuotak dira, sarrera guztien %26 suposatzen dutelarik; atal honetan, aurreikusitakoa baino %4 gehiago jaso da aurreikusitakoa baino ikasle gehiago izan direlako
- Auzolanean aritu diren familiei konpentsatu behar zaizkien kuotei aurre egiteko partidaren 2/3 gastatu dira
- Jantokiko erabiltzaile kopurua igotzeak sarrera kopurua handitu du.
- Eusko Jaurlaritzatik jasotako laguntzek, sarrera guztien %66 suposatzen dute.



Hezkuntza itunetan desbiderapen positiboa eman da, Eusko Jaurlaritzak ordainketa eskuordetuan bere soldata taula aplikatzen duelako oinarri moduan

- Jarraipen saria jaso duten langile guztiak irakasleak izan dira eta kitapenaren ge-



hiengoa ordainketa eskuordetuak ordaindu du; hala ere, Eusko Jaurlaritzak langile hauei jardunean aitortu gabeko urteei dagokien jarraipen sariaren zatia Ikastolak bere gain hartu du.

- *Ikastolako jairako antolatutako zozketan 13.000 euro lortu dira, behin sariak eta inprimaketa kitatuta.*

- *Gabonetako loteriaren salmentan 4.000 euro lortu dira.*
- *Barnetegi eta ibilaldien kostuaren %12a ikastolako aurrekontuak bermatzen du.*

Horrela, 2017 ekitaldiaren emaitza 24534 euro positibokoa izan da.

2018KO AURREKONTUA

2018 urterako aurrekontua orokorrean aurreko ekitaldietakoaren antzekoa da, gastu zein sarrera partidetan igoerak aurreikusten dira.

2018 urtean zehar lan hitzarmen berria onartuko dela uste da eta bertan soldata igoera onartuko dela; jaso den informazioa kontutan hartuz, igoera hori aurreikusi da aurrekontuan desoreka gutxiago eragin dezan.

Orokorrean ikasle kopurua aurreko ikasturteko moduan mantentzea aurreikusten da; zerbait aipatzekotan batxilergoan izango dugun ikasle kopuru altua azpimarratu beharra dago.

Batxilergo 1. mailan izango den ikasle kopurua handitzeak saio gehiago desdoblatzea

eskatuko du. Hori dela eta aurrekontuak jardun erdiko postu baten beharra aurreikusten du. Matrikula gauzatu ostean jardun osokoa izango dela iragar badaiteke ere, aurrekontuak ez du oraindik igoera hori jaso.

Sarrerei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak kontzertuak igo ditu 2017an eta kopuru horiek mantentzeak 2018ko aurreikuspena 2017koa baino altuagoa izatea ahalbidetzen du.

Kuotei dagokienean, 2017an izandako ikasle kopuruan oinarrituta egin dira aurreikuspenak eta horregatik zenbateko handiagoa ateratzen da. Edozein kasutan ez da kuota igoerarik egitea aurreikusten.